BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

207

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 11koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena; honen bidez jendaurrean jartzen da Berrizko udalerrian (Bizkaia), estalketa elektrolitikoko instalazioa egiteko Recubrimientos Aurkena S.L.k aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea da atmosferaren, uraren eta zoruaren kutsadura ekiditea, eta hori ezin denean, murriztu eta kontrolatzea. Horretarako, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babes dezan.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaiak, ustiaketak edo lekualdaketek, eta baita funtsezko aldaketek ere, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren I. eranskinean jasota badaude. Ingurumeneko baimen bateratuaren helburua da araua bete behar duten instalazioek haren xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea, hain zuzen, baimena ematerakoan parte hartu behar duten herri-administrazio desberdinen koordinazioa bermatu eta hiritarren administrazio beharrak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluak ezarritakoari jarraituz, proiektu publikoek zein pribatuek, obrak, instalazioak edo aipatutako arauaren I. eranskinean jasotako edozein jarduera burutzeko, ingurumenean inpaktuaren ebaluazioa behar dute, legean adierazten den moduan.

Ingurumen-organo honetan izapideak hasi dira, Berrizko udalerrian (Bizkaia), estalketa elektrolitikoko instalazioa egiteko Recubrimientos Aurkena S.L.k aurkeztutako proiektuaren ingurumeneko baimen bateratua lortzeko eta proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko; izan ere, proiektua kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotzen da.

Ingurumeneko baimen bateratua lortzeko aurreikusten den prozeduraren arabera, eskariarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa osatu ondoren, jendaurrean jarri behar da 30 eguneko epean gutxienez.

Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak eta xedapen hori garatzeko Arautegia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak aurreikusten duten prozeduraren arabera, jendaurrean jarri behar da ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera autonomia-erkidegoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ingurumen-inpaktua ebaluatzeko jardunak, derrigorrezkoak direnean eta eskumena autonomia erkidegoari dagokionean, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran barneratzeko.

Ondorioz, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezarritakoari jarraituz, jendaurrean jarri behar dira Berrizko udalerrian estalketa elektrolitikoko instalazioa egiteko Recubrimientos Aurkena, S.L.k aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Aintzat hartzeko arauak: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa; 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 1131/1988 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, hura betearazteko Erregelamendua onartzen duena; 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; eta oro har nahiz bereziki ezartzekoa den gainerako araudia. Hori dela eta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Berrizko udalerrian Recubrimientos Aurkena, S.L.k sustatzen duen estalketa elektrolitikoko instalazioa egiteko proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta 30 egun balioduneko epean. Epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

2. artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan egongo dira eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), eta Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Bizkaiko Lurralde Zerbitzuan (Concha Jenerala 23, – 7. soilarua, Bilbao).

Era berean, adierazitako dokumentazioa herritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako espedientea Berrizko Udalari bidaliko zaio, jendaurrean jartzeko epean erakuts dezan.

Era berean, proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean izango da (https://euskadi.net), herritarrek errazago eskura dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 11.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.